



BARREN
TOKIKOM



**1.000
esker**

COMBI BOSCH KGN36NW20

330 LITRO - NO FROST
MULTIAIR FLOW - 186 X 60 X 60 CM
%20ko AURREZKIA / A+



439€

FAGOR RAPID EXPRESS LAPIKOA

6 LITRO
2 PRESIO MAILA



49€



779€

LED SAMSUN 48" TELEBISTA

UE48J6302AK - KURBATUA
FULL HD - 3X USB 2.0 - 4X HDMI


UDAKO ESKAINTZA BEREZIA!



MILAR BIRE

Dendako prezioak. Agortu arte eskuragarri.

Ubitarte, 11 - 943 741 487 - bire@milar.es



*"Zein hizkuntza ederra
euskera guria,
inun ez det aurkitzen
beste bat hobia,
usai goxo dun hizkuntz
txukun ta argia,
biraorikan ez duan
hizketa garbia."*





ALBERTO AGIRREAZALDEGI



“Dena asmatuta dago, baina iraupena lortzeko etengabe asmatu beharra dago”

Mila ale, bai, 1.000 ale. Mila ale, milaka istorio, milaka herritar, milaka elkarrizketa, milaka argazki, milaka iragarki, milaka orrialde, milioika hitz, ...nork esango zuen BARREN sortu genuenean! BARREN Elgoibarko paisajearen parte bihurtu zen aspaldi eta bertako izaten jarraitzen du, plaza txikiak, Txankakuako zubiak edo tren geltokiak bezala.

Argazkiak, orrialdeak, hitzak, antzekoak dira aldizkari batean edo bestean, baina BARRENen elgoibartarrak azaltzen dira. Herritarrak idazle eta irakurle, aldizkariaren partaide, elkarlanaren bidez. Elgoibarren proiektu asko sortu dira elkarlanean baina ez dira hainbeste iraun dutenak. Eta horietako bat BARREN da. Gaur egun sortzeak baino gehiago balio du irauteak eta BARRENek oraindik bizirik dirau.

Baina meritu izugarria bada ere, ez gaitezen laudorioetan bakarrik gelditu. Prentsa idatziarentzat ez dira garai onenak. Heda-

bide asko desagertu dira eta beste asko jaió orduko hil. BARRENen osasunak baino iraupenak kezkatzen nau. Osasuntsu egotea ez baita nahikoa hedabideen itsasoan. BARREN paperezkoa eta digitala dauzkagu baina zein da bien etorkizuna? Nola irakurtzen dute irakurleek? Ez dut esan nahi komunean ala lantokian irakurtzen duten. Paperezkoan, ordenadorean ala telefonoz irakurtzen da? Eta zelan irakurriko dute hemendik hamar urtera?

Dena asmatuta dago, baina iraupena lortzeko etengabe asmatu beharra dago. Ez da nahiko betikoa egitea. Betiko irakurleak mantentzeaz gain berriak, gazteak, erakarri behar dira eta hau lan zaila da. Egun teknologiak dena eskura jartzen digu eta etetik mugitu barik dakigu munduko berri. Parisen edo Istanbulen gertatutakoak baino garrantzi gehiago dauka sarritan herrian gertatuak, baldin eta modu erakargarrian eta azkarrean iristen bazaio jendeari. Eta nola lortu hori? Asmatuko al dugu, Ainhoa? Beste hainbeste ale edo aste iraungo al du BARRENek?



AINHOA ANDONEGI

“Parte-hartzea eta elkarlana ezinbestekoak dira gurean”

Bat, zero, zero, zero. Lau zenbaki txiki dira bakarka, baina elkarrekin zifra handia osatzen dute: mila. Eta iritsi gara milagarren zenbakira. Zuek hasitako bideari jarraitu, eta konturatzerako bete ditugu mila zenbaki, Alberto. 1992. urtean sortu zenuten BARREN Elgoibarko euskarari bultzada emateko, eta orduetik, mila ostiraletan sartu da elgoibartarren etxeetara. Gaur egun kide bat gehiago da BARREN familia horietan.

Milaka orrialde bete ditugu, milaka kontu eta istoriorekin, eta ausartuko nintzateke esatera, historia ere egin dugula. Elgoibarko historia idatzi dugu. Datorren urtean egingo ditu BARRENek 25 urte, eta esan dezakegu mila zenbaki horietan idatzita dagoela Elgoibarko azken 25 urteetako historia. Eta hori guztia, herritarrei esker lortu dugu. Elgoibartarrak dira gurean protagonistak, irakurle zein idazle. Proiektu parte-hartzailea da gurea, eta aldizkarian idazten dutenak bezain garrantzitsuak dira astero-astero BARREN eskuartearen hartzen duten herritarrak. Parte-hartzea eta elkarlana ezinbestekoak dira gurean, beraz, nire partetik, mila esker guztioi.

Baina ezin gara egin dugunari begira geratu, eta aurrera begira jarri behar dugu. Garapen teknologikoak prentsa eta informazioa kontsumitzeko modua aldatu egin du, eta prentsa idatzia krisi egoeran dagoela esaten dute adituek. Gazteek ez dutela paperean irakurtzen, eta jakina, irauteko irakurle gazteak ezinbestekoak dira. Hori da komunikabide guztien helburua, irakurle gazteak erakartzea, eta helburu horretan denok ezinean gabilta. Interneten irakurtzen omen dute gazteek, sakelako telefonoan eta sare sozialetan. Berehala, modu erakargarrian eta labur irakurtzea gustatzen omen zaie. Behar horri erantzuteko, badira urteak BARRENen webgune digitala sortu genuela, eta oraindik egiteko asko daukagun arren, sare sozialetan ere badago BARREN. Hala ere, gurean paperak pisu handia dauka oraindik. Hanka biko proiektua da gurea, paperezkoa eta digitala eta batak bestearen beharra dauka aurrera egiteko. Euskarri bakoitzak berera egokitutako informazioa eskaintzea da gakoa.



IMANOL LARRAÑAGA

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea

1.000 zorion, Elgoibar!

izan da BARREN. Elgoibartarrok josteko haria. Eta hori dena euskaraz egin dugu.

Baina 24 urte ez dira alferrik pasatzen, eta egoera asko aldatu da. Dagoeneko, zorionez, ez da mirari bat astekari bat euskaraz argitaratzea. Hasieran astakeria zirudiena astekaria bihurtu da. Arraroa zena ohiko da. Eta astero ez ezik, egunero ere ematen dugu gure herriaren berri *barren.eus* webgunean. Beraz, atzera begirako argiak itzali eta BARREN komunikazio-proiektuak hurrengo urteetan bete behar duen funtzioa birpentsatu behar dugu. Zertarako nahi eta behar dugu BARREN elgoibartarrok?

Gure herriari horrenbeste eman dion proiektuaren etorkizuna daukagu jokoan, eta aintzat hartu beharreko hiru ideia aitatu nahi ditut:

- ◆ Ezin gara daukagunarekin konformatu. Oso ondo dago egin duguna, baina bide berriak zabaltu behar ditugu gehiago egin eta eragiteko.
- ◆ Proiektuak parte-hartzailea izan behar du. BARREN ezin da dozena erdi profesionalen kontua bakarrik izan.
- ◆ Etorkizunerako bidea ezin dugu bakarrik egin. Beste batzuek egiten zihardutenari begiratuta sortu genuen BARREN, eta aurrerantzean egin beharreko ibilbidea ere ingurukoekin batera egin beharko dugu, ezinbestean.

Amaitzeko, 24 urteotan era batera edo bestera BARREN egin duzuen guztiok zoriondu nahi zaituztet. Oso harro egoteko modukoa da denon artean egin duguna. Herri-ekimenak Elgoibarren sortu duen proiekturik garrantzitsuenetakoa daukagu esku artean. Ea egin dugunak beste ematen duen egiteko daukagunak.

Mila astetan elgoibartarren etxeetako buzoietan sartu-irtenean ibili ondoren, dagoeneko gutariko bat gehiago da BARREN. Hogeita bost urtetik beherakook, adibidez, imajinatu ere ez duzue egingo BARREN gabeko Elgoibar. Zuekin batera hazi da gure txikia.

Euskarari arnas berria emateko sortu genuen 1992ko abenduan, baina BARRENen proiektuak gure herriari eman diona ezin da euskaratik bakarrik baloratu. Elgoibar hobeto ikusteko leihoa

“Era batera edo bestera BARREN egin duzuen guztiok zoriondu nahi zaituztet”



BARREN

ARGITARATZAILEA:



ELGOIBARKO IZARRA
Euskaltzaleon Topagunea

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR
943 744 112
Publizitatea: 943 743 704
barren.publi@elgoibarkoizarra.eus
barren@elgoibarkoizarra.eus
www.barren.eus

BARRENek bere gain hartzen du espazio arazoengatik iragarriak lekuz aldatzeko eskubidea. BARRENek ez du bere gain hartzen Iritzia, Zozaok Beleari eta eskutitzak ataletan adierazitako erantzukizunik. **KOORDINATZAILEA** Oier Narbaiza **KAZETARIAK** Ainhoa Andonegi, Asier Orbea, Ainara Argoitia, Irati Agirreazaldegui, Oier Narbaiza **HIZKUNTZA ARDURADUNA** Oier Narbaiza **PUBLIZITATEA** Leire Rubio **MAKETATZAILEA** Zalao Amaiz **ATARI DIGITALEKO ARLO TEKNIKOAREN ARDURADUNA** Aitor Lauzirika **ADMINISTRARIAK** Amaia Arrizabalaga, Nerea Osoro **KOLABORATZAILEAK** Garazi Ayesta, Nora Hadi, Ibon Serrano, Arkaitz Irureta, Nora Kortaberria, Nerea Gurrutxaga, Andoitz Agirregomezkorta, Abel Arriaga, Inma Mugertza, Ander Izagirre, Ana Alberdi, Eneko Iturbe, Javi Muñoz, Rafa Furnier, Eire Vila, Mikel Olaizola, Manu Sanchez, Unai Villena, Iosu Juaristi, Ainhoa Lendinez, Iñigo Lamelas, Jose Luis Azpillaga, Julien Ansoa, Eider Iriondo, Edurne Izagirre, Alain Ulazia, Eneiz Ezenarro, Jesus Jimenez, Mikel Artola, Iñaki Odriozola, Ander Mujika, Ander Soraluze. **INPRIMATEGIA** Gertu Koop.E. **TIRADA** 4.860 ale **LEGE GORDAILUA** SS-1.038/92 **ISSN** 1138-1855

BABESLEA:



elgoibar
bizidunak

LAGUNTZAILEAK:



Gipuzkoako Foru Aldundia



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Hezkuntza, Hezkuntza Politika eta Kultura Sailak
(Hezkuntza Politikarako Sailburuordetza) diruz lagundua

DENOK GARA BARREN!

Elgoibarko Izarra elkarteak egiten du BARREN. Gure erredakzioa Kalebarren Plazan aurkituko duzu: han aritzen gara gaur egun hiru kazetari, maketatzailea eta publizista. Gure administrazioa Ubitarte kalean dago, Elgoibarko Izarrako lokaletan. Gure banatzaileak hamar lagun dira, barixakuero kalean dabiltzanak. Guk bakarrik ezin dugu proiektu hau aurrera eraman. Euskarazko komunikazio proiektu hau herritar eta eragile askoren lankidetzari esker bakarrik da posible.

Borondaterik onenaz eta musutruk astekarian kolaboratzen duten guztiek egiten dute BARREN. Atal finkoetan idazten dutenek, eskutitz bat argitaratzeko eskatzen digutenek edo argazkiren bat lagatzen diguten guztiek... Erredakziotik pasatzen zareten guztiok BARREN zarete azken batean, iragarki labur bat, eskela bat edo zorion-agur bat jartzera etortzen zareten guztiok, email bidez abisuak ematen dizkiguzuenok. Bai, tarteka buzoian mezu anonimoak lagatzen dizkiguzun horrek ere egiten duzu astekaria (aspalditxoan zure falta sentitzen dugu, non zabilta?).

Eta, nola ez, gure webguneko komunitatea elikatzen duten guztiak dira BARREN. Haiekin hartu-emana gehiago estutu beharko genuke, komunitate sendoagoa eratu ahal izateko.

Euskarazko publizitatea eraginkorra dela sinisten duzuenok ere zarete BARREN: astekarian, webgunean nahiz Gida Komertzialean tartetxo bat kontratatu duzuenok. Guztion dirua ahalik eta modurik orekatuenean kudeatzeko ardura duten herri erakundeek ere egiten dute BARREN.

Irakurleok egiten duzue BARREN, Elgoibarren, Mendaron eta mundu zabalean harpidetuta zaudeten guztiok, internet bidez irakurtzen duzuenok, sare sozialen bidez jarraitzen diguzuen guztiok.

Guztiei esker atera dugu mila bider BARREN astekaria. Guztioi, beraz, eskerrik beroenak. Mila esker.


BARREN

Mendaroko ospitaleak osasun zerbitzuak gerturatu zituenean



BARREnek 1993. urtean Mendaroko Ospitale berriari buruzko erreportajea kaleratu zuen. Datu hauek eman zituen: langileak, 291; langileen batez besteko adina, 30 urte; ohe kopurua 102 (24 maternokoak eta 78 bestelakoak); ohe okupazioa, %55-%65.

Gau bat Guass diskotekan, 'mambero'-ekin batera




Bikaina, benetan, Guasseko gau giroa jaso zuen kronika. **M**amberoek zapatu gava diskotekan zelan bizi zuten erretransmititu zuen astekariak, sarrerak 1.000 pezeta balio zuen saioan. Gaurko sei euro horiekin bi kontsumizio ematen zituzten.

Kilometroak 96, azken hamarkadetako ekitaldirik masiboena



Elgoibarrek 1996an hartu zuen ikastolen aldeko jaiaren ardurua. Azken hamarkadetan Elgoibarren izandako jaialdirik masiboenetako bat izan zen, eguraldi txarrak aurreikuspenak apaldu arren. 2.500 boluntariok jardun zuten lanean.

Helmugarik gabeko bidaia, Latinoamerikan barrena



Bidaiek eta abenturek ere lekua izan dute astekarian, Izaskun Arozenak eta Txotxek Latinoamerikan barrena bizikletaz egin zutena, esaterako. Argentinan hasi eta Guatemalara bitartean, 11.000 kilometro egin zituzten 11 hilabetetan.

Dominikar Errepublikako errealitate gordina klik batean



Hunkigarriak Edu Arrillagaren irudiak eta adierazpenak. Dominikar Errepublikan kaleko haurren munduan barneratu zen argazkilaria elgoibartarra *El Vuelo de la Chichigüa* erakusketa eta liburua prestatzeko. Jasone Osoro arduratu zen testuaz.

Minbiziaren aurkako borrokalari ahaztezina



Bizitza bat eta bakarra dugula, eta eguna bizi egin behar dela irakatsi zigun Ane Perezek. Elkarriketatu genuenean 17 urte zituen, eta bazeramatzan lau minbiziaren aurka borrokan. Umorea zuen botikarik onena. Ez dugu ahaztuko.

Soldadutzari egindako plantoa



Lehen intsumisioak 1989 agertu ziren Bilboko Gobernu Militarraren aurrean soldadutzara ez zirela joango iragarritz. Elgoibarko Aitor Esnaolak eta Mendaroko Xabier Goikoetxeak mugimendu horren inguruko hainbat azalpen eman zizkiguten.

Elgoibarko herria euskararen aldeko aldarriarekin bat eginik



Elgoibarko hainbat eragilek eta herritarrek parte hartu zuten 2015eko abenduko Lip-dubean, 365 ekimenak antolatuta. Urteko egun guztietan euskaraz bizitzeko nahia aldarrikatzeko ekitaldi jendetsua izan zen, jai-giroan ospatutakoa.

Zer da zuretzat BARREN?

Elgoibarren, Mendaron zein hurrunagoko beste hainbat txokotan baditu irakurleak BARRENEK. Ume, gazte eta zaharrago, emakume zein gizonezko, denetarikoez irakurtzen dute aldizkaria barixakuetan gehienek. Atal batzuk dituzte gogoko batzuek; beraiek edo ezagunen bat agertzen ote diren begiratzen dute besteek; bada beraiek gusturago irakurri edo ikusiko luketen zerbaiten falta sumatzen duenik ere. Beraientzat BARREN zer den galdetuta, gogoz hartzen duten zerbait dela erantzun digute.

Gemma Agirregomezkorta



Astero gogoz espero dudan gauza bat, herriarentzat garrantzi handikoa dena. Kanpoan bizi diren lagunek ere gogoarekin jasotzen dutena. Herriko jendea agertzen delako. Beste egunkarietan Elgoibarko berri ematen badute ere BARRENEK gertuko ukitua ematen du. Askotariko iritziak, gertakariak, saritu dituzten herritarrek...

Nerea Erkiaga

Elgoibarko berriak jarraitzeko modua, informatuta egoteko aukera ematen du eta era berean norbere gauzen berri emateko posibilitatea. Formatu bisual egokia eta azkarra da adin guztietarako. Euskara erabiltzea 25 urte... atzo hasi zela ematen du.



Pedro Mari Garate

Nik eta gure etxean ere gustura hartzen dugun aldizkaria da eta gehiena irakurtzen dut, gainera, herriko gauzak ekartzen dituelako. Ni ere agertu izan naiz eta joan den astean semea ere bai. Ez zigun esan horrelako elkarrietzeta bat egin zeniotenik, horrelako argazkiekin eta sorpresaz jaso genuen. Beti egiten du grazia ezagunen bat ikustea eta etxekoa denean are gehiago.

Eneko Etxaniz



Ostiraletan saiatzen naiz BARREN buzoitik arrebaino lehen hartu eta lehenengo begiratua ematen. Intereseko gauzak gogo gehiagorekin begiratzen ditut: agenda, gauzak noiz egongo diren jakiteko; gustatzen zaidan gairen bat ote dagoen; guk idatzitakoak edo gu agertzen ote garen, pilotan, bertso eskolan.... Txikitari BARREN hartu eta gelan ikasitako letrak eta begiratzen nituen. Irakurtzen ikasten joan naizen heinean gehiago.

Dorleta Lazarobaster

BARREN niretzat, irrifar batez ostiralero jasotzen dudana aldizkarixa; lagun artean berriak, argazkiak eta kontuak elkarrekin partekatzen ditugun aldizkarixa; herri mailan, gaztetxoenetik nagusienara, nolabait, batzen gaituen aldizkarixa; eta larunbat goizeko gosaria askoz goxoagoa egiten didan aldizkarixa. Bejondeizuela!



Aitor Gisasola

Elgoibarko gertakariak eta elgoibartarron bizitza euskara hutsean jasotzen dituen espazioa; digitalki egunero, paperean ostiralero. Gertutasuna eta konfiantza eskaintzen ditu. Hala ere, aspertu naiz aurpegi batzuk BARRENen beti ikusteaz. Elgoibarko aniztasuna gehiago azaldu beharko litzateke, baita notiziak bilatu eta sortu, ez bakarrik jaso. Bestalde, euskara ez jakitea edo ondo ez hitz egitea ez da freno izan behar BARRENen tartea izateko.

Margarita Etxaniz

Parisen bizi naiz eta BARREN herriarekin lotura izateko modua da, nahiz eta euskaraz ez dudan ulertzen. Gaur egun, pena bada ere, sarritan, eskeletan jende gehiago ezagutzen dut beste ataletan baino. Hala ere, gazte jendea agertzen da batik bat eta gustatzen zait ikustea zenbat gauza egiten dituzten eta batzuei aitita-amamen edo gurasoen antza ere hartzen diet batzuetan. Lehen argazki zaharretan ere ikusten nituen ezagunak, baina orain ez dira agertzen.

Matteo Cantú


BARRENek herriko aktualitatearen berri ematen dit. Herrian integratzeko laguntza garrantzitsua da.

Begoña Mugertza

Herriko aldizkari bat eta herriko albisteak jasotzeko modu egokia. Orain arte San Lazaron izan dudan lanagatik baliabide handia izan da hango gauzen berri emateko, baita orain, San Bartolome parrokiaren 300. urterrena dela-eta egiten ari garen gauzak jakinarazteko ere. Lehen, BARREN zabaldu eta lehenengo argazki zaharra begiratzen nuen eta orain ere gustatuko litzaidake egotea.

Alberto Eizagirre

Zonalde honetan garrantzitsua den gauza bat. Euskara bultzatzeko beharrezkoa den zeregina da BARRENena, eta gazteek irakurtzeko egokia. Nik neu 60 urte pasatakoa naiz eta ez naiz irakurle abila, baina hala ere gustura hartzen dut. Arraindegiko publizitate ere egin izan dut BARRENen. Beste inon ez dut egiten, baina aldizkariari laguntzatxo bat emateko egokia dela uste dudalako.



Hamar urteko ibilbidea sarean

BARREN anaia-arreba digitala, barren.eus, 2006ko urriaren 26an jaio zen, Elgoibarko eta Mendaroko berri sarean emateko. Ia hamar urteotan, Internetek bilakaera handia bezain azkarra izan du, eta nonahiko eta ezinbesteko bihurtu da. Kontu egin, gaur egun Internetera mugikorretik sartzzen garela gehienok, baina 2006an oraindik merkaturatu gabe zeudela telefono adimentsuak. Era berean, betidanik existitu direla dirudien arren, atzo goizeko kontua dira Facebook, Twitter, edo Youtube. Twitter sare soziala 2006ko uztailean jarri zuten abian, eta sasoi bertsuan hasi ginen Facebook berba entzuten inguruotan. Sarean bideoak partekatzeko Youtube webgune eza-guna ere 2005ean sortu zuten. Hala, barren.eus-en estreinako bideoak argitaratzen hasi ginenean nobedade handia izan zen herritarrak eta herriko hainbat ekintza bideoan jasota ikustea, telebista txiki bat bailitzan (une honetan 500 bideo inguru dauzkagu argitaratuta barren.eus-en). Gauzak asko aldatu dira urte gutxian. Elgoibarko edo Mendaroko hainbat ekitaldi estreinakoz bideoan ikus-tetik, mila ikuspegitatik ikustera pasa gara,

herritarrok sarera igotzen dituzuen argazkiei eta bideoei esker.

Erabiltzaileen iritzia

Erabiltzaileen komentarioen bidez barren.eus-en argitaratutako albisteen inguruan zuten iritzia jakitea ere berrikuntza handia izan zen hasieran, gai askoren inguruko eztabaida aberasgarriak sortu zitrelako. Egoera horrek, tamalez, ez zuen denbora asko iraun. Anonimotasunaren babesean iritzi foroak zapuztu zituzten lagun gutxi batzuen erruz, komentarioak egin ahal izateko filtroak jarri behar izan genituen eta gutxika iritziak emateari laga zioten erabiltzaileek. barren.eus-en komentarioak egiteko aukera duzuela gogorarazi nahi dizuegu. Izena eta e-posta bat ematea besterik ez dugu eskatzen. Sare sozialen bidez ere iristen zaigu herritarren iritzia. Facebooken 2.500 lagun inguruk jarraitzen gaituzue eta 980 jarraitzaile di-

tugu Twitterren. Audientzia datuei dagokenez, 2016an (uztailaren 6ra arteko datuak) 722 bisita izan ditu eguneko batez beste barren.eus-ek eta 1.287 orrialde ikusi dira eguneko.

BARRENen 1.000 aleak 'klik' batera

1992ko abenduaren 24tik gaurdaino BARREN aldizkariak argitaratu dituen 1.000 aleak barren.eus webgunean kontsulta daitezke PDF formatuan, eta tresna hori erabiltzera animatu nahi zaituztegu, ale berezi hau osatzeko geuk egin dugun moduan. Elgoibarko eta Mendaroko azken 25 urteetako bizimoduaren eta bizilagunen hemeroteca polita osatu dugula uste dugu. Bilatzailearen bidez argitaratu ditugun albiste guztiak, Internetekoak zein paperekoak, bilatu eta kontsultatzeko aukera duzue.



Zer da BARREN?

Elgoibarko Izarra Euskaltzaleon Topagunea elkartearen komunikazio proiektua da. Elgoibarko eta Mendaroko albisteak jaso eta argitaratzeaz arduratzen da, euskaraz beti ere. Bi herrietan interes orokorrekoak izan daitezkeen berriak ere lantzen ditu. Nagusiki, astekarían eta *barren.eus* webgunean oinarritzen du bere lana. Azken urteotan sare sozialetan eragin handiagoa izateko ahalegina egiten ari da. Horrez gain, hainbat argitalpen kaleratu ditu BARRENek.

◆ Zergatik BARREN izena?

Hasieran, ElgoiBARREN izena zuen astekariak, Elgoibarren egindako aldizkaria dela adierazteko, inguru hauetan erabiltzen den "barren" adberbioarekin hitz-jokoa eginez. BARREN erabili izan du jendeak beti astekaria izendatzerakoan eta azken urteotan marka hori bere egín du.

◆ Noiz sortu zen? Zein asmorekin?

Astekaria 1992ko abenduan hasi zen kaleratzen. Sasoi hartan, Euskal Herriko hainbat lekutan antzeko proiektuak hasi ziren loratzen, euskara elkartearen eskutik kasu gehienetan. Saiakera praktikoak izan dira guztiak, euskaldunok informazioa euskaraz jasotzeko dugun eskubidea gauzatzea lortu dutenak. Informazioa ez ezik, publizitatea ere euskaraz eraginkorra izan daitekeela erakutsi du BARREN ek bere ibilbidean.

◆ Zein izan da BARRENEN bilakaera?

BARREN ek hasierako lokal berean jarraitzen badu ere, urteen poderioz lan-taldea aldatuz joan da. Teknikoki eta operatiboki nabarmen aldatu da lan egiteko modua. Lan-taldearen batez besteko adinak ere gora egin du urteekin. Orain dela 23 urte ordenagailuak ez ziren gaur egun bezain azkarrak, erredakzioan ez zegoen internetik, ez eta korreo elektronikorik; argazkiak errebelatzera eraman behar izaten ziren gero eskaneatzeko. Aldizkaria maketatuta ondoren, disko batean grabatu eta Oñatira eramaten zen automobilerik, inprimategira. Teknologia berriak garatu ahala, lan sistema garai berrietara egokitu da.

Bien bitartean, diseinu joera berriekin bat egiteko ahalegin berezia egin du astekariak. Berehalakotasunak garrantzia hartu duen sasoiaren, gertatutako edozein berri momentuan zabaldu dezakegu webgunearen eta sare sozialetan bidez. Papereko prentsa idatzia krisian dagoen sasoi honetan, egoera berrietara egokitu beharko du astekariak.



2009ko ekaineko azala. Aztikerrek BARRENentzat egindako azterketaren emaitzak kaleratu genituen zenbaki horretan.

◆ Azal orrian Tokikom marka dator, zer da hori?

Euskarazko toki komunikabideok martxan jarri genuen Tokikom 2012ko martxoan. Ezaugarri eta helburu antzekoak ditugun proiektu txiki askoren indar metaketa da. Sektorea egituratzeko sortu zen Tokikom. 26 bazkide gara eta papereko edizioetan 200.000 irakurle ditugu denon artean. Gure webguneetan 600.000 bisita dauzkagu hilero. Tokikomek 169 langile dauzka guztira. Guztien arteko lankidetzari esker, interlokutore bakarra dugu herri-erakundeekin hitz egiteko eta enpresa handiekin publizitatea kontratatuzeko.

Goian, Ainhoa Lodoso eta Jasone Osoro kazetari lanak egiten hasierako urteetan. Behean, "Ni ere banaiz BARREN" kanpainaren ekitaldi jendetsua (2010).

◆ Zer lortu du BARRENEK 1.000 zenbaki hauetan?

Ohituta ez zegoen jende askok euskaraz irakurtzeko ohitura hartu du. Komunikazio proiektua sendotu da. Informazio eta komunikazio alorrean ezinbesteko erreferente bilakatu da BARREN bai Elgoibarren bai Mendaron. Webguneak aldatetarik ekarri ditu erredakziora. Osagarriak dira papera eta webgunea: azken orduko berriak jasotzeko internet bidez berehala zabaldu daitezke eta bideo zein argazki ugari zabaltzeko aukera dugu; papereko edizioak patxada handiagoz landutako elkarrizketak eta erreportajeak jasotzeko aukera ematen du edo argazki erakargarriak tamaina handian. Era guztietara, kontuan izan behar dugu jende guztiak ez duela internet sarerik eta eragile askok papereko edizioan agertzeko eskatzen ditutela.

◆ Zeintzuk dira etorkizuneko erronkak?

Irakurleen behar informatiboak asetzen jarraitzeko, papereko edizioak eduki landuagoak eskaini beharko litzuzke. Horrekin batera, interneten berehalakotasuna eta sare sozialetan elkarrekintzak findu beharko litzuzke. BARRENen bueltako komunitatea ere sendotu beharko litzateke. Autofinantzazio maila handitzea ere beste erronketako bat da, diru-sarrera propio gehiago izatea, alegia. Horrez gain, datozen urteotan euskarazko beste toki hedabideekin zer lankidetzara mota garatu nahi dugun definitu beharko genuke.



◆ Albiste bat lantzeko proposatu nahi diot BARRENI. Zelan eskatu behar dut?

Deitu 943 744 112 telefonora edo idatzi emailaz barren@elgoibarkoizarra.eus helbidera. Bestela, zatoz gure bulegora.

Osasun gida

Osasun gida

Osasun gida

Osasun gida

Osasun gida

Osasun gida

Osasun gida

Osasun gida

RPS 271/12

ainhoa
fisioterapia

Jausoro plaza, 6 behea
Elgoibar

943 531 953
669 565 745

aldaz
hortz klinikak

RPS233/13

Tel.: 943 366 377

San Bartolome, 22
20870 Elgoibar

fisio&más
Fisioterapia aurreratua eta
Kirol Berregokitzea

Trenbide kalea, 13
943 740 191 / 667 933 628
www.fisio-mas.com

RPS 112/18

CLINICA DENTAL
ELIZPE
HORTZ KLINIKA

RPS 88/15
Elizburu, 3 - SORALUZE
Tel.: 943 752 567

Astehelentetik ostiralean
10:00-13:00 / 16:00-20:00
e-mail: elizpe3@gmail.com



Lehen urteetako banatzaile taldea goian. Eskuman, oraingo bi banatzaile.



◆ Zenbat BARREN banatzen dira astero?

4.860 ale banatzen ditugu astero, gehienak Elgoibarren eta Mendaron. Beste batzuk posta bidez bidaltzen ditugu Euskal Herriko eta mundu zabaleko hainbat lekutara.

◆ Zer egin behar da BARREN jasotzeko?

Astekaria jasotzeko harpidetuta egon beharra dago, apuntatuta. Harpidedunen zerrenda etengabe eguneratzen ari gara, eta banatzaileek zerrenda hori erabiltzen dute. Buzoietan itsatsitako pegatinak erreferentzia bat dira banatzaileen lana errazteko. Ez baduzu aldizkaria jasotzen eskatu barren@elgoibarkoizarra.eus emailera idatzita edo 943 744 112 zenbakira.

◆ Aste honetan ez dut BARREN jaso. Zer egin dezaket?

Deitu gure telefonora edo idatzi gure emailera. Intzidentziari buruz banatzailearekin hitz egingo dugu eta berriro ez gertatzeko konponbidea aurkituko dugu.

◆ Astekaria astero banatzen da doan. Nola finantzatzen da?

Sarrera propioek eta diru-laguntza publikoek osatzen dute BARRENEN finantzazioa. 2016ko aurreikuspenetan, erakunde publikoek BARRENEN aurrekontuaren %59 diruz lagunduko dute (Elgoibarko Udalak %24, Eusko Jaurlaritzak %18, Gipuzkoako Aldundiak %10 eta Mendaroko Udalak %7); gainerako %41 publizitateko eta Zorionak eta Merkatu Txikia ataletako sarrerei esker finantzatuko da.

◆ Zenbat jende irakurtzen du BARREN?

Iazko urrian Eusko Jaurlaritzako Hizkuntza Politikako Sailburuordetzak egindako azterketaren arabera, 4.942 pertsonak irakurri zuten BARRENEN azken zenbakia inkesta egitean. Irakurle gehienek papereko edizioan bakarrik irakurtzen dute BARRENEN %78k. Irakurle gehienek, gainera, 15-30 minutu eman dituzte astekaria irakurtzen (%67k). Adinari erreparatuta, irakurle multzorik handiena gaztea da: %40k 16tik 34 urtera arteko adina du. BARRENEN irakurleen %66ren lehen hizkuntza euskara da, %4rena euskara eta gaztelania eta %29rena, ordea, gaztelania. Euskaraz hitz egiteko erraztasunari dagokionez, %35ek erraztasun handiagoa du euskaraz egiteko gaztelaniaz baino, %47k euskaraz gaztelaniaz besteko erraztasuna du, eta %18k gaztelaniaz egiteko erraztasun handiagoa du. BARRENEN irakurleen %17k uste dute errazago irakurtzen dutela euskaraz, %29k erraztasun bera dutela euskaraz zein gaztelaniaz, eta gehiengoak (%54k) errazago irakurtzen du gaztelaniaz.

Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida Osasun gida

federópticos
ikus
RPS 65/07
San Bartolome, 10
Tel.: 943 743 734

leku
eder
hortz klinika
RPS 171/12
Elena Herrero Lobo
Aita Agirre Enparantza, 5
20870 Elgoibar (Gipuzkoa)
Tel.: 943 530 053

RPS 183/12
Uzuri
optika audio
Elgoibar
Tel.: 943 740 359
Deba
Tel.: 943 192 192

Garazi Sampedro Arando
RPS 169/15
ERROSARIO
HAGIN KLINIKA
Errosario, 7
Elgoibar
943 743 679


Nazioarteko dantzak Folklore Jaialdian

Dantzak uztailean BARRENEN azala behin baino gehiagotan hartu izan du. Izan ere, herrialde urrunetako doinuak eta dantzak gerturatu ohi dira urte sasoi horretan Nazioarteko Folklore Jaialdia dela-eta. Euskal Herriko taldeekin batera, beste makina bat herrialdeetatik etorri izan dira taldeak Elgoibarrera, beraien ikuskizuna eskaintzera eta mila kolore deigarriak eta dantza ederrez ase dituzte ikusleak. Argentinatik eta Lituaniatik etorritako dantzariak aritu ziren Haritz Euskal Dantzari taldekoekin 1994an.



'Mauxi'-ri agur, baina txarangaren doinuak ozen

Musika hotsak zeinek ez ditu Mauxitxa txarangarekin lotzen Elgoibarren? Eta txaranga zuzentzen herrian askok ezagutu zuen Jose Alberto Ansola *Mauxitxa*. 18 urte zituela lagun musikarien taldea gidatzen hasi eta 30 urtez herriko jaietan horretan aritu ostean, agur esan zion *Mauxitxa*-k zuzendari lanari. Ez zen, ordea, soka eten, eta urtetik urtera txarangak milaka doinu eskaintzen ditu jaiak girotuz batean zein bestean. 1999koak izan ziren *Mauxik* txaranga zuzendu zueneko azken San Bartolomeak, baina *Mauxitxa* Txarangak jai doinuak utzi zituen orduan BARRENeko azalean baita gerora ere.



Gotzon Garate euskaltzale eta idazle

Literaturak hainbat izen eman ditu Elgoibarren, euskal literaturak batik batik, horietako bat Gotzon Garate. Besteak beste, jesuita, hizkuntzalaria, idazlea, irakaslea eta euskaltzalea. 2005ean Argizaiola saria eman zioten Durangoko Azokan euskararen eta euskal kulturaren alde egindako lan oparoa goraiatzeko, eta BARRENEN azala ere argitu zuen orduan. Gerora ere hartu ditu aldizkarian zenbait azal, gure artean joan zenean, baita 2009an omenaldia egin ziotenean ere.



BARRENEko kazetariak sari esanguratsuen jabe

Rikardo Arregi kazetaritza sarietan epaimahaiaren sari berezia jaso zuen Ainara Argoitia BARRENEko kazetariak 2013an. Gai korapilatsuak lantzeko hartu zuen tonu serio eta estridentziarik gabea eta idazkeraren dotorezia eta adierazkortasuna azpimarratu zituen epaimahaiak. Beste saririk ere jaso dute BARRENEko kazetariak. Izan ere, Ainhoa Lodosok Emakunde sarietako bat eskuratu zuen: 1993an kirok informazioaren atalean ohorezko aipamena eman zioten.



Antzerkia, bohemioen taupada

Antzeztokiko toloiak ireki zein kaleko jendea begira jarri dituzte Elgoibarko aktoreek sarri. Hainbat antzezlanekin utzi dituzte aho zabalik elgoibartarrak eta Taupadak azken lana 2015ean estreinatu zuen: *Bohemioen kluba*. Parisko Monmartre auzoa Elgoibarrera ekarri eta Bigarren Mundu Gerraren ostean bizirik irautea lortu zuten artista, poeta, filosofo, idazle, margolari, modelo, marinel, abeslari eta musikariak ikusarazi zituzten eta BARRENEko azalean ere horietako batzuen argazkiak jaso genituen.



Inauteriak, elgoibartarrak eta elgoibartarrez mozorrotzeko

Mozorro festak dira inauteriak eta aldizkaria ere kolorez mozorrotzen dugu. Urtetik urtera mila argazki ikusi ahal izan dira gure orrietan eta elgoibartar mordoak hartu du filmetako pertsonaien, animalien, herrialde askotako jendearen eta abarren itxura ganbaratik hartutako edo apropos inauterietarako prestatutako arrokekin. Izan da baina, oso urrutira joan behar izan ez denik eta herrian ezagunak diren hiru pertsonaiaren irudia hartu eta beraien gorputzera eraman zuten beste hiru elgoibartarrek: Eduardo Arrillaga argazkilaria, Julen Iriondo tabernaria eta Txomin Mujika Udal Musika Bandako zuzendaria. Batzuetan BARRENEko azala prestatzeko behar izaten den adina irudimen badute zenbaitek mozorro originalak egiteko.





Joseba Etxeberriaren neurriko urrezko bota

Joseba Etxeberriak gaztetatik erakutsi zituen futbolari handia izan zitekeenaren zertzeladak. 20 urtez azpiko Munduko Futbol Txapelketan hartu zuen parte Qatarren 1995ean, hamazazpi urte zituela. Espainiako selekzioan, besteak beste, Raul Gonzalez, Ivan De La Peña, Fernando Morientes edo Michel Saldago izan zituen taldekide, eta laugarren postua lortu zuten. Etxeberriak zazpi gol sartu zituen, eta Urrezko Botarekin, hogeitun urtetik beherako munduko golegilerik onenaren sariarekin, itzuli zen etxera. Dagoeneko egina zuen debuta Lehen Mailan Realarekin, baina denbora gutxi egin zuen Donostiako taldean. Athleticek fitxatu zuen 1995eko udan eta hamabost denboraldi egin zituen Bilbon. Espainiako selekzio nagusiarekin 53 partida jokatu zituen, tartean Munduko txapelketa bat eta bi Eurokopa.

Txakurrak lagun hartuta, kirolean

Maite Barruetabeñak eta Fernando Ruizek Pirena lasterketa ezagunean hartu zuten parte 1998an. Beraien hamar txakurrekin 700 kilometro inguru egin zituzten, hamar egunean, Pirinioetako estazio guztietan barrena. Hurrengo urtean, 1999an, Munduko Txapelketan hartu zuten parte Eslovakian, eta laugarren postuan sailkatu ziren. Kirol minoritarioek izan dute lekua BARRENEN 1.000 ale hauetan. Mendi lasterketak, ehiza, auto eta moto lasterketak, boloak, dirtsurfa, judoa, arku tiraketa, kulturismoa, boxeoa, zaldi lasterketak, errugbia, motoak, herri kirolak... guztiek izan dute euren portada. Orain arteko 1.000 aleetan 165 alditan joan da kirola BARRENeko lehen orrian.



Bi elgoibartar munduko eskubaloari ligarik onenean



Unai Arrieta eta Ander Goikoetxea eskubaloari jokalariei eman zien portada BARRENek 2003an. C.D. Bidasoan jokatzen zuen lehenak eta Eibarko J.D. Arraten bigarrenak, Asobal liga munduko ligarik onena zen sasoian. Elkarrekin hasi ziren eskubaloian jokatzen zortzi urterekin eta maila gorenean gurutzatu ziren euren ibilbideak. Harrez gero indar handia hartu du eskubaloiak Elgoibarren, batez ere Sanlo Eskubaloari Kirol Taldeak egin duen lanari esker.



Mari Arrillaga 'Arane I', bideak urratuz

Mari Arrillaga Garatek (Elgoibar, 1918 - Ondarroa 2015), Idotorbe bailarako Arane baserrian jaioa zela-eta, Arane I.a izena hartu zuen pilotari profesional moduan egin zituen urteetan. 1936an, 17 urte besterik ez zituela, Bartzelonara joan zen raketista moduan jokatzera eta handik Espainia guztiko frontoiak ezagutu zituen gero, harik eta 1953. urtean, jokatzeari laga zion arte. "Gizonei jatekoa kentzen genielako itxi zituen Moscardo generalak emakumeentzako frontoiak", azaldu zuen BARRENI eskainitako elkarriketan. Pilotaren "urrezko garaiak" ezagutu zituen Mari eta aitzindaria izan zen emakumeen kirolean.

Eli Ibarra, bihotza zuri-gorria

Athleticekin partida gehien jokatu dituen emakumea da Eli Ibarra. Bilboko Atladearekin ligan jokatu zuen 300. partidaren harira elkarriketa eskaini zion BARRENI 2014an. Ibarrak 2002tik jokatzen du Athleticen eta sekulako palmaresa osatu du. Bost liga irabazi ditu dagoeneko, azkena 2015-2016 denboraldian, eta erreferentea da Athleticen zein emakumeen futboleant.



Gaizka Loiola, iluntasunean argi

Jaiotzez da itsua Gaizka Loiola (Elgoibar, 2002), eta txikitatik abiadura eta sentsazio biziak ditu gustuko. Ez ikustea ez da oztopo izan Gaizkarentzat, eta argi erakusten dute azken urteetako lorpenek. Behin baino gehiagotan irabazi ditu Espainiako Ezinduen Txapelketak.

LANA.....

Eskaerak

Asteburuetan adineko pertsonak zaintzeko prest nago. 632 229 972

Adineko pertsonak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna edo orduka. 637 966 749

Adineko pertsonak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. Interna lan egiteko ere prest nago. 632 889 041

Adineko pertsonak eta umeak zaintzeko edo garbiketa lanak egiteko prest. 628 738 472

Elkarteen lokalak eta portalak garbitzeko prest. 617 571 210

Garbiketa lanetan, zein umeen eta adinekoren zaintzan aritzeko prest nago. 680 037 575

Adinekoak eta umeak zainduko nituzke, baita garbiketa lanak egin ere. 631 353 468

Administratzaile lanetan (ikasketak), bidaia agentzietan (esperientzia) edo dendari lan egiteko prest. 632 480 108

Edozein lanetarako prest. Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen esperientzia. 602 193 095

Edozein lanetarako prest. Garbiketa lanetan edo pertsona nagusiak zein umeak zaintzen esperientzia. 612 216 458

Umeak zaintzen lan egiteko prest nago. Esperientzia eta erreferentzia onak. 632 747 703

Pertsona nagusiak zaintzeko prest, asteburuetan. Esperientzia eta erreferentzia onak. 648 039 187

Pertsona nagusiak zainduz egingo nuke lan. Esperientzia handia daukat. Orduka, gauak edo ospitaleko zaintzak. Etxeko garbiketarako egiteko ere prest. 633 808 931

Geriatría laguntzailea adinekoak zaintzeko prest. Orduka aritzeko eta paseatzera ateratzeko prestutasun osoa. 646 931 162

Adineko pertsonak zaintzen edo tabernen eta portalen garbiketan lan egiteko prest. 631 790 555

Adinekoak zaintzen, garbiketa lanetan edo sukaldari laguntzaile aritzeko prest. Interna edo orduka. 631 132 553

Eskaintzak

CD Elgoibarrek fisioterapeuta behar du. 675 706 723

Neska euskalduna behar da uztaillean, goizez, bi ume zaintzeko. Harremanetarako telefonoa: 665 720 335

Astean bi orduz, arratsaldean, irakurtzen erakutsiko lidakeen norbaiten bila nabil. 632 279 996

ETXEBIZITZAK.....

Alokairua

Alokairuko pisu bila ari naiz. 3 logela. Ahal dela Elgoibarko erdigunetik gertu. 655 712 021

LOKALAK.....

Alokairua

Xagua tarberna dago alokairuan. San Frantzisko kalean. 605 741 485

Eibarko Alberto taberna eskualdatzen da. Juan Gisasola kalea, 10 (Elgetako bidean). Bezero kartera ona. 692 321 479

BESTELAKOAK.....

Bikientzako haur-kotxe osoa salgai. Egoera onean. Jane twin two modeloa. Bi matrix aulki, euritako plastiko guztiak, poltsa... 300€. 676 889 260

Lau metro diametroko sonbrila eta zintzilikatzeko hamaka salgai. Egoera onean daude. 943 531 648

Itsasoa, arrantza, edo-eta urpekaritza gustatzen zaizkion pertsona baten bila nabil Mutrikuko portuan fueraborda bat erdibana erosteko. 669 293 423

Gps Garmin Etrex galdu dut, Karakateetik Berazetara jaisten den BTT bidean. Aurkitu duenak mesedez deitu dezala telefono zenbaki honetara. 646 225 465

Zilarrezko pultsera bat galdu dut. Balio sentimental handia du. Norbaitek aurkitu badu deitu, mesedez. 628 784 502

Lepoko bat aurkitu nuen ekainaren 4an, Txarriduna taberna kanpoaldean. Norbaitek galdu badu deitu. 660 056 219

Merkatu txikiko iragarkiak hiru astez argitaratzen ditugu. Salmenta eta alokairu iragarkiak ordaindu egin behar dira. Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 18€ (alokairua) - 22€ (salmenta). Autoak saltzea: 18€ . Bestelakoak: 10€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 6€ gehiago ordaindu behar dira.

BAZKIDEENTZAKO PREZIOAK:

Etxebizitzak, garajeak eta lokalak: 15€ (alokairua) - 20€ (salmenta). Autoak saltzea: 15€. Bestelakoak: 8€. Iragarkiari erretratua jarriz gero, 5€ gehiago ordaindu behar dira.



P. M. Urruzuno kalea, 6 behea - Elgoibar
 ☎ 943 743 140 - rosapf@telefonica.net



Nire bizilagunen komunitatean, etxejabe batek leihoak aldatu nahi ditu eta azken solairukoak dira. Eraikuntzako fatxadan dekorazio-moldura bat dago, azken solairuetako leihoetara lotuta. Etxejabe horrek ugazaben batzarrean esan du beharrezkoa dela moldura hori aldatzea bere leihoetan iltzatuta dagoelako eta aldaketa hori egin nahi duenez moldura horiek kendu egin behar direla, bestela hondatzeko arriskua baitago. Jakin nahi nuke bizilagunen komunitateak ordaindu behar dituen moldurak kentzeko eta ondoren jartzeko gastuak.

Nire ustez, leihoak aldatzeko obra eta ardura jabearenak baino ez dira. Beraz, ugazabak bere kargu hartu behar du eraikineko elementu komunetan kalteak eraginez gero ordaindu beharko dena. Legeak dio jabe bakoitzaren ardura dela norbere etxebizitza edo lokala, eta instalazioak egoera onean mantentzea, ez diezaien kalterik eragin ez komunitateari ezta gainontzeko jabeei ere. Eta bere zein bere ardurapeko norbaiten akats edo arduragabekeriak kalterik eragingo balu, berak ordaindu beharko luke.

AHOLKUA: Etxejabeak ordaindu beharko du leihoak aldatzeko egin behar duen obra, baita lan horiek eragin ditzaketen kalteak ere. Horrez gain, dekorazio-moldurak ere, jabeak eskatu dituen lanek eragina baitute horiengan.

ROSA M^a PINTADO: Etxaldean Administratzaile-Gradu ikasketen arduraduna Alcala de Henareseko Unibertsitatean, eta Gipuzkoa, Bizkai eta Arabako, Errioxako eta Kantabriako ikastetxeetan. Zuzenbidean lizentziatua. Kolegiatu zenbakia: 749






Kontuan hartu datorren astean opor aurreko BARRENen azken zenbakia kaleratuko dugula. Argazkiak eguazten eguerdia (12:00ak) baino lehen ekarri behar dira BARRENeko bulegora, edo barren@elgoibarkoizarra.eus e-postara bidali.




Zorionak, **Unax**, gaur 11 urte betetzen dituzulako. Asko gozatu dezazula. Familia guztiaren partez, muxu handi bat.



Zorionak, **Saioa**, atzo 6 urte egin zenituelako. Muxuak zure guraso eta zure ahizpa Iratxeren partez.



Zorionak, **Uxue**, bihar 8 urte beteko dituzulako. Segi orain bezala, pozik eta alai. Familiako guztien partez.



Iker, txapeldun, bihar zure eguna! 9 belarri tirakada eta muxu potolo bat familiakoen eta bereziki Miren eta Aneren partez. Zorionak!



Zorionak, **Sugar**! Ondo pasa zure hamabigarren urtebetetzean. Muxu erraldoi bat zure familia eta lagun partez!




Zorionak, **Eneko**! Ondo pasa gaur, zure 10. urtebetetze egunean.



Zorionak, **Lara**, martitzenean 2 urte bete zenituelako eta **Danel**, abuztuaren 7an 4 urte beteko dituzulako. Muxu asko familia guztiaren partez.



Zorionak, **Maddi**! astelehenean 8 urte! Segi orain arte bezain jator eta alai. Muxu handi bat familiakoen eta batez ere Aneren partez.



Zorionak, **Ivan** eta **Eli**! Heldu da eguna! Ondo pasa zapatuan eta zorionsuak izan etapa berri honetan. Familia guztiaren partez.



Zorionak, **Ivan** eta **Eli**. Iritsi da egun haundia. Disfrutatu, guk ere berdina dogu-eta. Kuadrilakuak.



Zorionak, **Luken** eta **June**, uztailen urteak betetzen dituzuelako. Muxu handi bana.

Jon Aranao
Guillermo Torres



Elgoibar
Albaitaritza

San Roke, 26 - 20870 ELGOIBAR (Gipuzkoa)
Tel.: 943 740 704 - 639 047 337
Astelehenetik ostirala: 11:00 - 13:00 / 16:30 - 19:30
Larribatak: 11:00 - 13:00

Ispepoindegi zerebitzua daukagu.
Deitu ordu hartanaka.



atzak
taberna

San Roke 28, behea
943 531 301 / 646 443 183

Bazkari eta afari bereziak ematen ditugu

ORBE



PERTSIANAK EGITEN DITUGU
TOLDO MOTA GUZTIAN ADITUAK

Karabixa, 1 - Ermua
Tel.: 943 179 860

www.toldosypersianasorbe.com
persianasorbe@gmail.com

TOLDOAK ETA PERTSIANAK

Uzuri ELGOIBAR - DEBA
optika audio

RF8 183-12 www.uzurioptika.com



Uretatik babesteko tapoiak NEURRIRA!
Babestu zure belarriak

STOP OTITIS!




**Jarri ezazu zure publizitatea
BARREN astekarian edo
www.barren.eus webgunean**

943 744 112

Kalebarren plaza, 2 - 20870 ELGOIBAR

8 BARIKAKUA

10:30-13:00 San Fermin txiki. Antolatzaileak: Atxutxiamaika eta Udal Ludoteka. San Bartolome eta Errosario kaleetan zehar.

21:30 Bideo foruma: *Madres e hijas*. Dinamizatzailea: Loredi Salegi. Antolatzailea: Haizea. Kultur Etxeko hitzaldi gelan.

22:30-02:00 Ehunmilak ultratrail lasterketari ongietorria. Antolatzailea: Elgoibarko Ehunmilak Taldea. Azkaraten.

9 ZAPATUA

11:00 Kolore guztiak. Kultur Arteko Elkarateak antolatutako ekintzak: kamisetak margotu, arabiar izenen tailerra, txapak, aurpegia margotu... Mendaroko Herriko Enparantzan.

16:00 Txirindulari lasterketa: Mendaroko IX. Jabier Ezenarro oroitzarrea. Junior maila. Antolatzailea: Mendaroko Txirindulari Elkartea.

10 DOMEKA

11:00 Urrunetik gidatutako autoen erakustaldia. Antolatzailea: Avar Eztanda elkartea. Mendaroko pilotalekuan.

11 ASTELEHENA

21:00 Nagusien danborradako entsegua. Mendaro Ikastolan.

13 EGUAZTENA

21:00 Nagusien danborradako entsegua. Mendaro Ikastolan.

14 EGUENA

19:30 Dokuforoa: *Festa dezagun gaurdanik geroa*. Antolatzailea: Tratu onen taldea. Mendaroko gaztetxean.

15 BARIKAKUA


18:30-20:30 Odol-ematea. Osasun Zentroan.

19:00 Mendaroko binakako V. Raketa txapelketako finala. Antolatzailea: Mendaroko Raketa zaleak. Pilotalekuan.

Nabarmenduak

Erakusketa Deban

Debako Santa Maria Elizako Klaustroan artea izango da nagusi uztailean eta abuztuan. Willy Berasalucek *Hutsuneak* erakusketa jarri du ikusgai. Sortzen den espazio orok bete ezin den hutsunea sortzen du eta hori da Willy Berasalucek erakusketarako proposatzen duena. Erabilitako teknika sinplea da: paper itsatsi, desitsatsi eta urratu bidez egindako collage-ak. Irailaren 5era arte egongo da erakusketa martitzetik zapatara 17:00etatik 19:00etara; eta domeketan, 17:00etatik 20:00etara



BENETAKO BIZITZARAKO
HIPOTEKARIOAK

**EURIBOR
+ % 0,85**

Lehen urteko ITNa: %1,30.
UTBAldakorra: %1,229*

CA bankoa
CREDIT AGRICOLE



Zinea (Kalegoen plazan)

'Asterix, jainkoen egoitza'

(euskaraz)

8 barixakua, 22:30



'Los Minions'

(gaztelaniaz)

9 zapatua, 22:30



Botika ordutegiak

09:00 - 13:00 / 16:00 - 20:00

Guardiak

09:00 - 22:00

8 Barixakua GARITAONANDIA

9 Zapatua ETXEBERRIA

10 Domeka ETXEBERRIA

11 Astelehena ORUESAGASTI

12 Martitzena YUDEGO

13 Eguaztena ORUESAGASTI

14 Eguena BARRENETXEA

15 Barixakua IBAÑEZ

22:00 - 00:00

Astelehenetik domekara

ETXEBERRIA (Elgoibar) - Santa Ana, 1

Tel.: 943 740 140

00:00 - 09:00

IRAUNDEGI (Eibar) - Fermin Calbeton, 19

Tel.: 943 201 110

* Fernandez: Herriko enparantza 4,

Garagartza (Mendaro) Tel.: 943 756 142

* Ibañez: Rekalde, 1 (Soraluze)

Tel.: 943 751 638

* Oruesagasti: Kalebarren, 9 (Soraluze)

Tel.: 943 751 384

Ekainean hildakoak

◆ Jesus Campello Teijido

50 urte, ekainak 3

◆ Angel Vicente Martin

81 urte, ekainak 7

◆ Martina Alcibar Osa

98 urte, ekainak 13

◆ Mikel De Pablo Cid

30 urte, ekainak 15

◆ Perpetua Azpiazu
San Martin

100 urte, ekainak 21

◆ Conrado Maria San
Millan Egaña

65 urte, ekainak 27

◆ Jesus Mari Astigarraga
Garate

70 urte, urtarrilak 29

ETXEBERRIA tanatorioa
Hileta zerbitzua osoa eta 24 ordukoa

KUTXAK, TRASLADOAK ETA KOROAK.
NORBANAKOEI ETA KONPAINIEI ZUZENDURIKO ZERBITZUAK.
ERIETXE ZENTRUETAN ZERBITZUAK

Santa Klara, 14 - 20870 ELGOIBAR

Telefonoak:

943 741 327 (24 orduz)

Sakelekoak: 635 756 295 / 629 635 203

www.funerariaetxeberria.com





Hasierako lantaldea. Goian, Amaia Leiaristi eta Ainhoa Lodoso. Behean, Alberto Agirreazaldegi, Maite Rementeria eta Itziar Agirregomezkorta.

BARREN

Zuri-beltzeko argazkiak agertzen ziren orduan irakurleak buzoira joaten zirenean BARREN bila. Eta BARREN hori astero egiten aritzen zen lantalde abila. Merkatu plaza azpiko txoko ilunetik irten eta irekitzen zuen herrirako maratila, 1.000 albiste ezkutu, makina bat dendara 1.000 bisita eta 1.000 elgoibartar hurrun bihurtu ditu urteotan agiriko eta herritarrengandik urbila. BARRENen barrenetik, beraz, irakurle eta herritar esker mila.

Horrelakoetan komeni izaten da argazkiei kolore pixka bat ematea eta zenbakietan aurrera joan ahala ireki genien koloreei atea. Argazkiei eta hauen gehiegizko distirari zein argi faltari batek baino gehiagok jarri dio aitzakia, baina horregatik BARRENekoei ez zaigu falta herriko berriei argitasuna emateko borondatea. Leku batetik bestera mugituz 1.000 pauso ematea

eta zenbakitik zenbakira aurrera joatea. Beraz, BARRENetik bestetik ez zaigu gelditzen, argi eta garbi eskerrik asko esatea.


Zuri beltzetik kolorera, lehen zenbakitik milagarrenera, atzetik aurrera. Bai, aurrera, paperetik sarera, inprentara eraman eta bueltan ekartzetik momentuan bertan albistea argitaratzera. Aurrera goazen heinean begiratu dugu atzera, hasierako lantaldera, orduan emandako lehen pausoak gogoratzera. 1.000 zenbaki, 1.000 pauso, milaka hizki, milaka irakurle, kolaboratzaile eta milaka argazki. Beharbada joan beharko genuke, bai, argazki berria ateratzera. Elgoibarren beti izan da eza-guna BARRENeko lantaldearen erretatua eta kamerarekin joaten garenean kalera herritarroi ere esango dizuegu: mila esker zuen irribarrea, hitzak, kontu zaharrak eta berriak eta kolorea ere iritsi zaigulako eta iritsiko direlako gurera.

“Zenbakietan aurrera joan ahala ireki genien koloreei atea”



Juanita Moreton Fernandez

2016ko uztailaren 6an hil zen, 84 urte zituela.
Sendiak bihotzez eskertzen ditu jasotako doluminak,
bai eta hileta elizkizunetara agertu izana ere.



I. URTEURRENA

Antonio Fidalgo Losada

Estación taberna

2015eko uztailaren 8an hil zen, 85 urte zituela.

**Maitasuna ez da inoiz itzaltzen.
Eta inoiz itzaltzen ez delako, gogoan zaitugu.**




I. URTEURRENA

Sebastiana Larrañaga Artetxe

2015eko uztailaren 10ean hil zen, 99 urte zituela.
Haren oroimenez I. urteurreneko meza izango da, domekan,
uztailak 10, eguerdiko 12:00etan Mendaroko Azpilgoetako elizan.
Joango zaretenoi alde zurretik eskerrak.

**Zure indarra eta adorea
gogoan dugun bitartean
beti izango zara
gure artean.**



	CORDON VILARCHAO	DEKORAZIOA
San Roke, 7 behean Pel. Glase - Glaseko kalea, 18 - 25 eta 26 modulua Tel. 943 740 570	Kanpo eta barneko instalazioak Zoluek ezaritzea Lakaduta: egur, aluminio, PVC, Pintura orokorra	

A. Garate

Era guztietako igeltsaritza lanak egiten aditua
angelmgarate@gmail.com
Santa Ana kalea, 28 behea - 2. zkia - 20870 Elgoibar

610 226 651

ELENA

ileapaindegia

Depilazio Elektrikoa

San Frantzisko 49 -1 Tel: 943 741 189

- ★ IDAZMAKINEN SALMENTA
ETA KONPONKETA
- ★ MULTIKOPISTAK
- ★ FOTOKOPIADORAK
- ★ ERLOJU INDUSTRIALAK
- ★ MARRAZKETA
MATERIALA
- ★ INFORMATIKA
- ★ FAX

MEKANOSA

Errosario, 27
Tel: 943 74 02 84 Elgoibar

Gremioen gida

Aroztegiak
Elektrizitatea
Igeltseritza
Iturgintza
Leihoak
Pintura

ARROZTEGIAK

**iraolagoitia**
aroztegia · altzariak · etxe-aldaketak

Kurutz-gain Industriagunea, 9
20850 Mendara
Tel.: 943 756 112 / 636 497 485

www.iraolagoitia.com

**MAR**
ARROZTEGIA

Olaso industriagunea, 17 beheha
943 531 471
609 054 978
carpinteriamar@hotmail.com



**BIENA S.L.**
ARROZTEGIA

Ermuaranbide, 12-14-16
tel/fax: 943 743 116
www.biena.eus
info@biena.eus



Arroztegia · Carpinteria

**ASIMA**

Ermuaranbide, 18 - Elgoibar

687 150 226
650 026 631
636 886 322
943 744 225

asimaaroztegia@gmail.com

**Ulazia**
ARROZTEGIA ETA ENBALAJEAK

Albitxuri industriagunea, 1-O/ 1-P
943 740 547



ELEKTRIZITATEA

**iparelek s.l.**
elektrizitatea

Kilimon hiribidea, 1 - Mendara
943 530 356

iparelek@gmail.com
iparelek@iparelek.com

**ELECTRICIDAD
AZPELETA**

San Frantzisko, 51
Elgoibar
Tel.: 943 741 238

**CARRANZA,**
ELEKTRIZITATEA

Uparitzaga 10, 6.B
Elgoibar
karranzajl@gmail.com


Tel.: 943 741 280
Jose Luis: 626 555 999

**electricidad
PEROSANZ**

www.electricidadperosanz.com
eibar@electricidadperosanz.com

Bergain 17. AC beheha
Tel.: 943 202 209
Fax: 943 206 045
20800 EIBAR

Herriko Enparantza 5
Tel.: 943 033 033
20850 MENDARA

**egoluz**

ELEKTRIZITATEA S.L.
(lehen TAES)

Ego-Gain, 9 AC
20600 EIBAR

Andres: 630 957 345
Raimon: 677 512 462
Bulegoa: 943 200 697

IGELTSERITZA

**E. ARANDIA**
ERREFORMA ETA LEIHOAK
Urasandi, 22 beheha - Elgoibar
Tel.: 605 705 204

Gremioen arteko
koordinazioa.
Pladurrekin ere
lan egiten dugu.

**IGELTSERITZA
CAMILO
ALVAREZ**

Jardiñeta, 25 beheha
EIBAR

Ernesto: 620 060 104
Fran: 600 465 789

ITURGINTZA

**SANTANA**
Igor Santana

ITURGINTZA ETA INSTALAZIOAK S.L.

Urazandi kalea 17, beheha
Elgoibar
943 740 530 / 605 714 905
santanaiturgintza@gmail.com

**PAGOERROTA
ITURGINTZA**
Herriko Enparantza, 10 beheha
MENDARO
943 75 60 44 / 628 529 692
Faxa: 943 75 60 37
pagoerrota@pagoerotaiturgintza.com
www.pagoerotaiturgintza.com

**ongi** Iturgintza

Pedro Muguruza Etorbidea, 11
ELGOIBAR

Tel.: 943 254 522

Faxa: 943 254 523

ongi@ongielgoibar.com

www.ongielgoibar.com

**FONTANERIA
Ibámar**
ITURGINTZA

San Roke 10-A, beheha B
Elgoibar
Floren Cid: 647 463 436
ibamar@euskalnet.net

**TELLABIDE**
ITURGINTZA

Azpilgoeta 7 beheha - Mendara
Tel.: 943 755 062 / 607 755 062
iturgintzate.llabide@hotmail.com

**ZUBIZARRETA**
instalazioak

Ubitarte plaza, 5 beheha
Elgoibar

943 740 789
650 586 144



**PAGOAGA S.A.**

BULEGOA ETA ERAKUSKETA
Pedro Migel Urzuzo, 8
Tel.: 943 740 512 / Faxa: 943 743 565
bienda@pagoagasa.com
www.pagoagasa.com

BILTEGIA
San Antolin, 13 - Tel.: 943 740 279
tailler@pagoagasa.com

ELGOIBAR

LEIHOAK

**LODOSO
LEIHOAK**

SIGMA INDUSTRIAGUNEA, 223
lodosofj@gmail.com
Tel.: 943 74 34 90

PINTURA

**BIOK**
dekorazioa

Uparitzaga, 14 - Elgoibar

943 741 552
606 431 120

biok@biokdekorazioa.com

Gremioen
gida